

Nautikako terminologia biltzeko proposamena: nabigazio-egunerokoen testu-generoa abiapuntu gisa

Itziar Gonzalez-Dios

Ixa Taldea

Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa Saila (UPV/EHU)

itziar.gonzalezd@ehu.eus

Ikerketa-iraskuntza lan honetan nautikako eta itsasontzi makineriako euskarazko baliabideak eta alor horietako komunikazio-beharrak aztertu ditugu nautikako euskarazko baliabideen egoera aztertzeko eta osatzeko asmoz. Honekin nautikan euskararen erabilera sustatzeko “gure apurra” jarri nahi dugu.

EHUko Nautika eta Itsasontzi Makineria Goi Eskola Teknikoan¹ (Bilboko Ingeniaritza Eskola) gutxi dira euskaraz ematen diren ikasgaiak. 2016/2017 ikasturtean lehendabiziko aldiz hasi dira ikasgaiak euskaraz eskaintzen 1. mailan, baina 1. maila horretan ematen diren ikasgaiak itsas munduarekin zerikusi zuzenik ez dute: matematika, informatika, fisika... 3. eta 4. maila lehen “Euskara Teknikoa” ziren eta orain “Euskararen Arauak eta Erabilera” eta “Komunikazio Euskaraz” diren hautazko ikasgaiak eskaintzen dira. Eskoletan (eta lan-munduan) euskara ia ez erabiltzearen ondorio nagusia da terminologiaren azterketarako beharrezkoak eta oinarri diren testuak gutxi direla. Hori dela-eta, maiz entzuten dira eskolan “nautikarako ez dago ezer euskaraz”, “uff, hori euskaraz nola esan” “a ze zaila, baina egin behar da eta guk egin behar dugu” bezalako esaldiak.

Lan honetan, nautikako eta itsasontzi makineriako terminologia gordetzen duten baliabideen azterketa kritikoa egin dugu eta terminologia egon badagoela erakutsi nahi dugu. Baina, adierazi nahi dugu termino horiek ez daudela sistematikoki bilduta: hainbat arlotan sakabanatuta daude (arrantza, kirolak...). Termino horien bilketa egiteko, baliabidetan eta komunikazio-beharretan oinarrituta, testu-generoetan oinarritutako proposamena aurkeztu nahi dugu.

Baliabideen azterketa egiteko, nautika eta itsasontzi makineria arloak soilik aztertu beharrean, itsas munduko baliabideak izan ditugu aztergai. Izan ere, badira euskaraz hiztegiak arrantzarekin edo estropadekin lotuta dauden baliabideak. Portuetan sortzen diren baliabideak ere aztertu ditugu. Baliabideen azterketa hau ez dugu hiztegietara mugatu, testu-liburuak, txostenak e.a. ere izan ditugu aintzat.

Bestetik, itsasontzietan izan ditzaketen komunikazio-beharrak zein diren ikusteko, itsasontzietan eraman behar duten dokumentazioa aztertu dugu. Dokumentu horiek “14/2014 Legea, uztailaren 24koa, Itsas Nabigazioari buruzkoa” (14/2014 Legea) legean jasotzen dira, eta dokumentu horien artean terminologia aldetik interesgarrienak “nabigazio-egunkariak²”, “bitakora-koadernoak³” eta “makinen koadernoak⁴” dira. Hasierako lan honetan lehenengo biak (nabigazioarekin lotutakoak) aztertu ditugu. Nabigazio-egunerokoetan⁴ eta bitakora-koadernoetan, sinbolikoki lau ordutan behin data, ordua, egoera meteorologikoa, abiadura e.a. jaso behar da. Alegia, testu-genero hori itsasontzian eta itsasontziaren inguruan gertatzen den guztiaren narrazioa da.

Beraz, hasierako azterketa gisa, terminoak biltzeko, testuetan jaso behar den informazioa beste alorretako baliabideetan bilatu dugu: meteorologikoa Euskalmeten⁵, data, ordua, eta tokiak Euskaltzaindiaren arauetan⁶, eta neurriei eta koordenatuei dagokiona Ingeniaritzako liburuetan (Etxebarria Bilbao, 2014). Honela, euskaraz nautikarekin lotuta ez zeuden terminoak bildu ditugu.

Lan honen emaitza nautikako irakasle eta ikasle batzuei helarazi zaie, eta hasierako azterketa honetatik terminologiarekin lan egiteko une honetan aztertzen ari garen beste lan batzuk sortu dira. Etorkezunean, lanarekin jarraitzeko, makinen koadernoarekin eta garatzen ari diren beste testuekin (erregelamenduak, esaterako) metodo bera erabiltzeko asmoa dugu. Horretaz gain, bildutako terminoak sare semantikotik jasotzeko modua aztertu nahi dugu.

ERREFERENTZIAK

14/2014 Legea. BOEren euskarazko gehigarria, 180, Madrilen, 2014ko uztailaren 25ean.

Etxebarria Bilbao, J. R. 2014. Komunikazioa euskaraz ingeniartzan. UPV/EHUko argitalpen zerbitzua eta UEU.

Prohom Duran, M.J. 2002. El uso de los diarios de navegación como instrumento de reconstrucción climática. La marina catalana del siglo XIX. *Investigaciones geográficas*, 85:89-104.

1 <http://www.ehu.eus/eu/web/nautika-itsasontzi-makineria/home> (2017-03-30an atzítuta)

2 Legean “nabigazio-egunkari” erabili arren, irakasleak eta ikasleak ez daude termino horrekin oso ados, eta “nabigazio-eguneko” edo “nabigazio-eguneroko” proposatzen dituzte. Guk lan honetan azkenekoa erabiliko dugu.

3 Nabigazio-egunerokoetan eta bitakora-koadernoetan informazio bera jasotzen da. Lehenengoa kapitainak betetzen du eta bigarrenkoa agintezubiko ofizialek.

4 Kuriositate bezala, paleoklimatologian, XIX. mendeko marinel katalanek idatzitako nabigazio-egunerokoak erabili dituzte ozeano Atlantikoko klima berreraikitzeke (Prohom Duran, 2002).

5 Beaufort eskala: http://www.euskalmet.euskadi.eus/s07-6072/eu/contenidos/informacion/dic_escala_beaufort/eu_7126/eu_escala_beaufort.html
Terminologia-gida: http://www.euskalmet.euskadi.eus/s07-5893/eu/contenidos/informacion/manual_estilo/eu_9900/eu_nubosidad.html (2017-03-30an atzítuta)

6 http://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_euskaltzaindiarenarauak&view=frontpage&Itemid=424&lang=eu (2017-03-30an atzítuta)